

ASTIGARRAGAKO EUSKARA BATZORDEAREN ERATZE **PROZESUA**

1. Zer da Astigarragako Euskara Batzordea?

Astigarragan euskararen gaia elkarte eta eragile askok lantzen dugu, zuzenean edo zeharka bada ere. Talde eta eragile horiek guztiak nolabait elkartzeko beharra aspaldikoa da herrian. Jakinda ere badagoela beste eragile bat horretan ari dena, Astindu, uste dugu Euskara Batzordeak beste osaera eta ezaugarriak izango dituela eta herriko euskalgintzari ekarpena egingo diola.

2. Zein dira bere helburuak?

Hainbat helburu izango ditu batzordeak. Hauek aldakorrak izango direla aintzat hartuta, honako hauek behintzat aipa ditzakegu:

- Eragileek ditugun behar eta arazoei elkarrekin konponbideak bilatzea, aholku eta irizpideak elkar-banatzea, baliabideak eskaintzea, ideiak partekatzea, hainbat gaitan elkarlana burutzea...
- Euskararen egoera aztertu eta honen erabilera sustatu eta bultzatzea.
- Hainbat erabaki eta norabide elkarren artean hartzea.

Honetarako guztirako eragileen arteko konfiantza eta elkarlana sustatzen saiatuko gara, eragile bakoitzaren izaera eta espazioa errespetatuko dugu eta Astigarragako euskalgintzako sareari ekarpena egiten ahaleginduko gara.

3. Zein funtzio ditu?

- Eragileek egunerokoan behar dituzten baliabideak eskaintzen saiatuko da.
- Hizkuntza irizpideen jarraipena egitea, betetze maila baxua den kasuetan neurriak hartzen laguntzeko.
- Denon artean hausnarketak bultzatzea.
- Eragileen arteko harremana sustatzea eta hauen arteko zubiak eta elkarlana sustatzea.
- Herri mailako lanketak egitea. Urtean bat edo bi nahikoa izan daiteke, eragile bakoitzaren plangintzan positiboki ekarpena egiteko eta ez karga bihurtzeko.

4. Udalarekiko zein rol jokatuko du?

Udalak parte hartzea garrantzitsua da. Bere ezagutza eta baliabideak eskaintzeaz gain, hizkuntza irizpideen jarraipena egin ahal izateko ezinbesteko erakundea da. Batzordearen dinamikak beste dimentsio bat har dezake udalaren parte hartzearekin. Honetaz gain, Batzordean ateratako ideiak udaletxera eramatea garrantzitsua da.

5. Zein maiztasunekin bilduko da?

Batzuentzat asko dena besteentzat gutxi. Maiztasuna dinamikak berak markatuko du, momentu batzuetan gehiago beharko da, eta beste momentu batzuetan gutxiago.

Dena dela, proposamena honako hau da:

- 3 hilabetero bilera orokorra.
- Urtean 3-4 saio monografiko. Saio irekiak nahi duena joateko. Gaiak zehazteke daude; adibidez:
 - Hizkuntza irizpideak.
 - Soziolinguistika.
 - Astigarragako 2024-2029 Euskararen Plan Estrategikoa.
- Dinamika konkretuak. Urte bakoitzean dinamika bateratu bat hautatzea proposatzen dugu. Horretarako behar diren bilerak egingo ditugu. Nahi duena joateko.

6. Nork parte hartuko du?

Parte hartu nahi duten eragileek hartuko dute parte, beti ere euskararekin zuzenean edo zeharka zerikusia dutenak. Hauetaz gain, norbanakoek ere parte hartu ahal izango dute.

7. Funtzionamendua

Eragileek parte hartuko dute bilera orokorretan. Gainerako bileretan interesaren edo aukeren arabera parte hartuko dute edo ez. Dinamizataile bat edo bi egongo dira. Kurtso hasieran hautatuko dira dinamizataile horiek parte hartuko duten eragileen artean eta euskararekin zerikusi handiena dutenen artean. Dinamizataile hauek lanagatik ordaina jasoko dute eta ongi identifikatuak egongo dira, denok jakiteko nor diren erreferentziazko pertsona horiek.

8. Nola bermatuko dugu dinamika osasungarria izatea eta Batzordearen iraunkortasuna?

Hainbat irizpide errespetatzen saiatuko gara:

- Bilera eraginkorrak egin. Bilera zertarako den garbi izan behar dugu denok eta saiatuko gara ez itzulinguruka ibiltzen.
- Epe motzeko helburuak garbi izan eta horiek betetzeko ahalegina egin. Helburu hauek aldakorrak izan daitezke, beraz, 1-2 urtero birplanteatu behar ditugu.
- Denon hitza kontuan hartuko da, denok entzunak sentiarazi behar dira. Errespetuzko parte hartzea bermatu behar dugu, gardentasuna bermatu, parte hartzea erraztu eta ez inoren iritzirik besteen gainetik jarri. Horretarako, lehen bileretan bilera-protokoloa adostea proposatzen dugu.
- Dinamizazio eraginkorra bermatu eta honi dagokion denbora eskaini.
- Lanerako prestasuna izan, baina ez lan karga handiegirik sortu. Ez da inor behartuko ezer egitera. Agian momentu zehatz batean eragileren batek ez du nahiko edo ezingo du ekimen batean parte hartu. Hori errespetatu.
- Iraunkortasuna bermatzeko egokitzen joan behar dugu etengabe. Hasieran helburu eta izaera bat izan dezake, baina pixkanaka egokitzen joan daiteke, herria ere aldatzen doalako. Helburu eta dinamikak ebaluatzen joan behar dugu eta hauek moldatzen.

9. Zein komunikazio bide izango ditugu?

Gure artean email bidez komunikatuko gara. Dinamizataileak arduratuko dira partaide guztiei gai-ordena eta akta bidaltzeaz eta partaideengandik bilera aurretik jaso beharreko informazioa jasotzeaz.

Kanpora begira sare sozialak izango dira gure komunikazio tresna nagusia. Eragile bakoitza arduratuko da Batzordean adostu duguna bere sare sozialen bidez zabaltzeaz. Honetaz gain, eragile bakoitzak bere espazioan jarriko ditu kartel eta gainerako euskarriak.

10. Nola hasiko gara?

Lehen bileretan eragile bakoitzak diagnostikoa egitea proposatuko dugu. Lehen bileran adostuko dugu diagnostikoa egiteko hezurdura; bigarren bilerarako eragile bakoitzak bere diagnostikoa ondu eta konpromiso maila adieraziko du.

Ondoren, bileren funtzionamendu egokirako protokoloa osatzea proposatzen dugu eta kurtsuari begirako adostasun minimoak zehaztea.